

# ZUBITXO ERREKA, LEZON

## GURE ERREKA HOBETZEN!

### IBAIERTZEKO LANDARETZA



ERREKAKO KONTSERBATIO MAILA ONA DAUKA GOIALDEAN; BERTAN, ONDO KONTSERBATUTAKO LANDARETZA AUTOKTONOA ETA BASOAK DAUDE.

LEZOKO HERRIGUNEAN, ORDEA, LANDARETZA MOTA HORI ESKASA ETA POBREA DA, ERREKA BIDERATZEKO ETA ALDATZEKO EGINDAKO LANEN ONDORIOZ.

### IBAIKO FAUNA



AZKEN URTEOTAN, URAREN KALITATEA BERRESKURATU DA, ETA, HORRI ESKER, ERREKA INGURUKO BEREZKO ANIMALIAK DAUDE BERRIRO, HALA NOLA, UROILOA (*Gallinula Chloropus*) EDO AMUARRAIN ARRUNTA (*Salmo trutta*); ERREKEN EGOERA ONAREN BIOADIERAZLEAK BIAK ALA BIAK.

### URAREN KALITATEA



LEZOKO UDALAK, DUELA ZENBAIT URTE, UDALERRIKO ERREKEN KALITATE FISIKO-KIMIKOA BERRESKURATZEKO ERABAKIA HARTU ZUEN.

HORRETARAKO, HERRIKO UR-IBILGUETAKO ISURIEN JARRAIPENA ETA HORIEK DETEKTATZEKO LANAK EGITEN ARI DIRA, ETA LAN HORIEN EMAITZAK OSO POSITIBOAK DIRA, NABARMEN HOBETU BAITA BAI ZUBITXO ERREKAKO BAI HERRIKO BESTE ERREKA BATZUETAKO UREN KALITATE FISIKO-KIMIKOA.



### ORAIN

### IBAIKO MORFOLOGIA



PASA DEN MENDEKO BIGARREN ERDIAN, EZ ZEGOEN GAUR EGUN DAGOEN INGURUMENAREKIKO KONTZIENTZIA: ERREKA LURPERATU ETA BIDERATU ZEN, ETA ONDORIOZ, HAREN MUGIMENDU ETA FUNTZIO NATURALAK OZTOPATU ZIREN.

EZ LITZATEKE BERRIZ EGIN BEHAR HORRELA KORIK.

### INGURUMEN- HEZKUNTZA



LEZOKO UDALAK ZENBAIT HEZKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO EKINTZA ANTOLATU DITU ZUBITXO ERREKAREN BALIOAK SUSTATZEKO ASMOZ.

AZPIMARRATZEKO DA ZUBITXO EGUNAREN OSPAKIZUNA. EGUN HORRETAN, ERREKAN PILATUTA ZEUDEN HONDAKINAK JASO ETA IKUSGAI JARRI ZIREN, HERRITARRAK KONTZIENTZIATZEKO HELBURUAREKIN.

DIAGNOSIA

JARDUERA-PROPOSAMENA



## JARDUERA-PROPOSAMENA

- 1 XOXOLURRA IBAI-PARKEA SORTU
- 2 IBAI-BIDEA BIRGAITU
- 3 GARBITOKI INGURUA  
3.1.- HORMIGOIZKO PASAGUNEA ORDEZKATU ZUREZKO PASABIDEAREKIN  
3.2.- GARBITOTIKO IBAI-PARKEA SORTU  
3.3.- BIDERATZE-MURRUA SANEATU  
3.4.- JARDINERAK JARRI BIDERATZE-MURRUETAN
- 4 ELIAS SALABERRIA PASEALEKUA BERRIRO URBANIZATU
- 5 HIGATUTAKO EZPONDA BABESTU
- 6 HORMIGOIZKO MURRUA ERAITSI

\* HONDAKINAK BILDU ETA ESPEZIE INBADITZAILEAK KONTROLATU TARTE OSOAN


### UDAL INGURUMEN-POLITIKAREN JARRAIPENA

UDALAK ABIATU DITUEN INGURUMEN-POLITIKEN EMAITZAK OSO POSITIBOAK IZATEN ARI DIRA, HORI DELA-ETA, OSO INPORTANTEA DA ETORKIZUNEAN ISURIAK KONTROLATZEKO EKINTZEI EDO ZUBITXO EGUNA BEZALAKO EKITALDIEI EUSTEA, BATETIK, HERRIKO ERREKAK -BEREZIKI, ZUBITXO ERREKA- LEHENERATZEKO ETA HOBETZEKO, ETA BESTETIK, URAREN INGURUAN HERRITARRAK SENTSIBILIZATZEKO ETA HEZTEKO.

### IBAI-BIDEA BIRGAITU

GOIKO TARTEAN, ZUBITXO ERREKAK EREMU MISTO BAT ZEHARKATZEN DU, BARATZEK ETA HARIZTI BASO AUTOKTONOEK OSATUTAKOAK. BALIO NATURAL HANDIKO EREMUA DA HORI, ETA HERRIGUNETIK GERTU DAGOENEZ, OSO APROPOSTA DA AISIALDIRAKO. LEZOARREK, BERTARA JOATEKO, BIDE-ZORU IRREGULARRA ETA GAIZKI ZAINDUTA DUEN PISTA BAT HARTU BEHAR DUTE.

HORRELA, AISIALDI-ERABILERA SUSTATZEKO, UDALAK HAUXE EGIN NAHI DU: OINEZKOEN BIDEA BIRGAITU, ZUBITXO ERREKAREN GAINEAN DAGOEN IBIA ZUREZKO PASABIDE TXIKI BATEKIN ORDEZKATU, ETA MAHAIAK ETA ESERLEKUA DITUEN ATSEDENLEKU TXIKI BAT EGOKITU XOXOLURRAN, INGURUKO BALIO NATURALAK ERRESPELATUZ BETIERE.



### ASIALDIRAKO IBAI-EREMUAK SORTU

IBAI-EREMUAK HERRITARREI HURBILTZEKO ASMOZ, HAINBAT EREMU EGOKITU NAHI DIRA ERREKAREN ONDOAN ATSEDEN HARTU ETA AISIAZ GOZATU AHAL IZATEKO.

ERREKAREN GOIALDEAN, JAIZKIBEL MENDI-HEGALEAN, MERENDERO TXIKI BAT EGIN NAHI DA XOXOLURRAN.

GARBITOKI INGURUAN, PARKE TXIKI BAT EGIN NAHI DA ERREKAREN EZKERRALDEAN DAGOEN BERDEGUNEAN. ESERLEKUAK ETA ZUREZKO PERGOLA BAT JARRI, ETA KALITATE ESTETIKO HANDIKO LANDAREAK LANDATU NAHI DIRA BERTAN.

ELIAS SALABERRIA PASEALEKUAN, EGUNGO LORATEGIAK KENDU NAHI DIRA ERREKA ETA HERRITARREN ARTEKO IRAGAZKORTASUNA GALARAZTEN DUTELAKO, ETA EREMUA BERRIRO URBANIZATU NAHI DA ERREKA OZTOPORIK GABE IKUSI AHAL IZATEKO.

### HONDAKINAK BILDU

GAUR EGUN INFORMAZIO ASKO DAGO UREN KALITATEARI EUSTEAK DUEN GARRANTZIARI ETA KALITATE HORREK GIZAKIAREN DITUEN ONDORIOEI BURUZ. HALA ERE, BADA ORAINDIK ERE ZABORRA ETA HONDAKINAK ERREKA-IBILGUETARA EDO IBAIERTZETARA BOTATZEN DUENIK.




HORI DELA-ETA, ERREKAKOAK EZ DIREN MATERIAL GUZTIAK BILDU NAHI DIRA, IBAIERTZETAN ZEIN IBILGUAN BERTAN DAUDENAK. AHALEGIN BEREZIA EGIN BEHAR DA HONDAKIN ASKO DAUDEN LEKUEAN, HONDAKINDEGI KONTROLATU GABEAK BIHUR EZ DAITEZEN.

### IBAI-AZPIEGITURAK ORDEZKATU

IBAI-EREMU INTEGRATUAGOAK ETA ESTETIKOAGOAK LORTZEAREN, HORMIGOIZKO EGITURAK KENDU, ETA HORIEN ORDEZ, IBAIAREN INGURUAREKIN BAT DATOZEN MATERIALAK ERABILI NAHI DIRA, ZURA ESATERAKO.

HORIEK HORRELA, GARBITOKI INGURUAN, OINEZKOEN PASAGUNEA ORDEZKATU NAHI DA ZUR IJEZUTZKO PASAGUNE BATEKIN, IBAI-INGURUNEAREKIN BAT ETORTZEKO.

ERREKAREN BEHEKO TARTEAN (KIROLDEGIAREN ONDOAN), HORMIGOI ARMATUZKO MURRU BAT ERAITSI NAHI DA, EZ DUELAKO INOLAKO FUNTZIORIK ETA IKUSI-INKAKTU HANDIA SORTZEN DUELAKO.



### IBAIKO EZPONDAK TRATATU

ERREKAREN IBILBIDEAN ZEHAR, BI LEKU LOKALIZATU DIRA NON EZEGONKORTASUN FENOMENOEK ERAGINA IZAN DEZAKETE IBAIKO EZPONDETAN.

BI LEKU HORIETAKO BAT ERREKAREN ESQUINALDEAN DAGO, GARBITOKI INGURUAN. BERTAN, BIDERATZE-MURRUA ERAISTEKO ARRISKUA DAGO.

BESTE LEKUA ERREKAREN BEHEALDEAN DAGO, JAIZKIBEL HIRIBIDEAREN ONDOAN. BERTAN, IBAIKO EZPONDA BABESTEN DUEN HARRI-LUBETA HIGATUTA DAGO KORRONTEAREN ONDORIOZ.

### LANDARE INBADITZAILEAK KONTROLATU

ERREKAREN BALDINTZA EKOLOGIKOAK HOBETZEKO, FUNTSEZKO DA EUSKAL HERRIKOAK EZ DIREN LANDARE INBADITZAILEAK KONTROLATZEA ETA KENTZEA.

ZUBITXO ERREKAN *Buddleja davidii* ESPEZIEA DAGO. ESPEZIE HORREK ASIAKO EKIALDEAN DU JATORRIA, ETA INPAKTU OSO NEGATIBOA DU FLORA ETA FAUNAREN KOMUNITATE AUTOKTONOEN GAINEAN. HORI DELA-ETA, LANDARE HORIEK MOZTU ETA TRATATU NAHI DIRA, IBAI-EKOSISTEMAREN BEREZKO ESPEZIE AUTOKTONOEN BIDEZ, BIRKOLONIZAZIOA AHALBIDETZEKO.



Sustatzailea:  
LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA



Aholkularia:  
ASTIV INGENIERIA S.L.



Diruz laguntzen du:  
UR AGENTZIA - AGENCIA VASCA DEL AGUA

"LEZON, ZUBITXO ERREKAREN INGURU HIDRIKOAREN EZAGUTZA HOBETZEKO ETA BERE BALIOA AZPIMARRATZEKO PROPOSAMENA, HEZKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO IKUSPEGITIK"